



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko abenduaren 16a

38. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da muntako neurrietan sakon dezan, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako politika integraleei dagokienez. Nafarroa Bai eta Bildu Nafarroa parlamentu-taldeek aurkeztu dute (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Drogamenpekotasunen II. Plana aurkez dezan. Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urriaren 6ko 1/2011 Foru Dekretu-Legearen aurretik zegoen bateragarritasunari euts diezaion mendetasunerako laguntzetan. Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du babesa ematen diela Aezkoan eta Erronkarin oihan-biomasako plantak ezartzeko ekimenei. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioek ukitutako ondarearen inbentarioa egin dezan. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Zeure burua begietsi” proiektua garatzeko protokolo bat ezar dezan. Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Ana Montoro” Fundazioarekiko lankidetzaprotokolo bat ezar dezan “Zure ilea irribarre baten truke” proiektua garatzeko. Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztu du (9. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoaren bigarren multzoaren legekontraktotasuna berresten duen epaia aplikatzeko aurreikusi diren ekintzei buruzkoa, Marisa de Simón Caballero andreak egin (11. or.).
- Galdera, San Juan de Dios Ospitalearekiko ituna dela-eta gardentasuna sustatzeko hartu beharreko neurriei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin (12. or.).

- Galdera, Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoaren bigarren multzoa legez kontrakoa dela deklaratu duen epaiaren ondotik eginen diren ekintzei buruzkoa, Victor Rubio Martínez jaunak egina (13. or.).
- Galdera, jakiteko nork hartuko dituen bere gain Zaragoza-Iruña abiadura handiko linea eraikitzearen ondorioz gerta daitezkeen kostu gehigarriak, Victor Rubio Martínez jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Caritasi oinarritzko errentaren ordainketarako aurrerakinak itzultzeari buruzkoa, Enrique Martín de Marcos jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko zer zuzemen egin dituen Nafarroako Gobernuak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Akitaniako Erkidegoak mugaz gairako eta estatuarteko europar entitate bat sortzeari dagokionez, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (15. or.).
- Galdera, ETB ikusi ahal izateari buruzkoa. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea (15. or.).
- Galdera, prestazio handiko trenbidearen zati desberdinak egiteko aurreikuspenei eta inbertsioari buruzkoa. Sustapen eta Etxebizitza Batzordean izapidetzea (16. or.).
- Galdera, Valtierra San José Egoitzako postuei buruzkoa, José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (16. or.).
- Galdera, “0-3 urteko haurrak eskolatzeko hitzarmenak udalekin (Ezkaroze, Lerin, San Adrián, Altsasu eta Arbizu)” kontusailaren betetzeari, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (17. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, 2010eko otsailaren 8koa, izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzeari buruzkoa (18. or.).
- María Chivite Navascués andreak foru parlamentari izaerari uko egitea. (19. or.).
- Raquel Garbayo Berdonces andrea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartzea (19. or.).
- María Carmen Ochoa Canela andrea Socialistas de Navarra parlamentu-taldean sartzea (19. or.).
- Enrique Martín de Marcos jauna Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularraren sartzea (20. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularraren eleduna aldatzea (20. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da muntako neurrietan sakon dezan, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako politika integraleei dagokienez.**

*NAFARROA BAI ETA BILDU NAFARROA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai eta Bildu Nafarroa parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita muntako neurrietan sakon dezan, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako politika integraleei dagokienez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Gaur, azaroaren 25ean, nazioarteko erkidegoak egungo arazo handi eta esanguratsuenetako batean jarri du azpimarra: emakumeen aurkako indarkeria.

Beharrezkoa da erakunde, eragile eta organizazio guztiek, bai eta gizarte-maila guztiek ere, egunero lan egin dezaten gaitz justifikaezin hori desagerrarazteko, eta Nafarroako Parlamentuak oinarritzko erreferentzia izan behar du arlo horretan.

Jakin badakigu indarkeria matxista desagertzetik urrun dagoela, gure gizartean sustraituta baitago, eta ezerk ere ez du adierazten epe motzean edo epe ertainean desagertu daitekeenik.

2011n 7 emakume izan dira orain arte Euskal Herrian erailak. Espainiako Estatuan, berriz, 85 kasu gertatu ziren iaz, eta indarkeria matxistako milaka kasuren berri izan ohi dugu hedabideen bitartez.

Indarkeria matxistako kasuen salaketak egunero sartzten dira komunikazio-agendan. Gure herrietako eta hirietako jaietan edo jai-inguruetan aldiro gertatzen dira emakumeen aurkako jazarpenak eta erasoak, haien askatasuna mugatzen dutenak. Lan-esparruan ere benetan ikaragarriak dira emakumeen aurkako indarkeriaren datuak. Sexuen arteko botere-harremanek eta balio patriarkalek bizirik diraute gazteen artean, eta, halatan, nerabe eta gazte askok baliatzen dute emakumeen aurkako indarkeria.

Beste gizarte-maila batzuetan ere ikus genezake egunerokoa dela emakumeen aurkako indarkeria, emakumeen eta gizonen arteko harreman askotan praktika endemiko bat dela.

Orobat egiaztatzen dugu arazoa eteteko partzialak eta eskasak direla erakundeen lana, hartutako neurriak, legeak, erakundeen arteko protokoloak, aginduak eta erabakiak, neurri horiek guztiak ez direlako indarkeria hori azkartasunez eta eraginkortasunez ezabatzen ari.

Indarkeriarik gabeko bizitza bat ziurtatu behar zaie ezinbestez emakumeei, eta hezkidetzaren ereduak abiatuta lan egin behar da, gure neska-mutikoen autonomia sustatzeko.

Beharrezkoa da hirietan ez egotea lekuri nora emakumeak ezin diren joan erasotutako izateko beldurrez; elkarteak, hiriak eta herriak bizigarriak izatea emakumeentzat, ziurtatzea ezen hirigintzaren

eta mugikortasunaren arloko jarduketa guztiak generoaren ikuspuntutik planifikatu eta garatuko direla.

Hori guztia kontuan izanik, ondokoa erabaki dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du munta handiko neurrietan sakon dezan emakumeen aurkako indarkeriaren arloko politika integralari dagokionez, eta hartara areagotu ditzan hezkuntza arloan ezarritako prebentzio-neurriak, eraso-osteko laguntza-neurriak eta are gizarte-erantzuneko balizko neurriak.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du bere eskumenek bide ematen dioten neurrian konpromisoa har dezan politika aktibo, integral eta koordinatu bat garatzeko, hala-ko moduan non agerian jarriko baita hitzetatik ekintzetara igartzeko behin betiko urrats bat egin izana.

2011ko azaroaren 25a

Foru parlamentariak: Nekane Pérez Irazabal eta Aitziber Sarasola Jaca

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Drogamenpekotasunen II. Plana aurkez dezan.**

### *MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita Drogamenpekotasunen II. Plana aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatu zuen, bere garaian, Osasun Departamentuak Drogamenpekotasunen Foru Plan berri bat egin zezan; hartara, 2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren

24ko 21/2008 Foru Legean kontusail bat sartu zen, "Drogamenpekotasunen Foru Plan berria" izeneko, 100.000 eurokoa.

Drogamenpekotasunen II. Foru Planaren pres-taketa-lana prozesu parte-hartzaile baten bidez gauzatu da, zeinean gizarte-eragile guztiek esku hartu duten.

Lehendabizi, Drogamenpekotasunen I. Foru Planaren ebaluazio-fasea abiarazi zen, profesionalen ekarpenak eta asmoak biltzeko. Hainbat bilera egin ziren esparru guztietako profesionalen, politikoaren barne. Dinamika parte-hartzaile horrek II. planaren pres-taketa-lana ere blaitu zuen. Lan horri bukaera emateko bilera bat egin zen esparru guztietako profesionalen eta administrazio publikoen barruan –toki administrazioan, administrazio autonomikoan nahiz Parlamentuan– ardurak dituzten pertsonekin. Fase hori 2010eko ekainean bukatu zen.

Oraindik ez da aurkeztu ez planaren edukia ez Drogamenpekotasunen Foru Plan berria abian jar-tzeko egutegia ere.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du Drogamenpekotasunen II. Foru Plana aurkez dezan eta plana garatzeko aurreiku-sitako faseak eta antolamendua zehatz ditzan.

2011ko azaroaren 28a

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urriaren 6ko 1/2011 Foru Dekretu-Legearen aurretik zegoen bateragarritasunari euts diezaion mendetasunerako laguntzetan.**

### *TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita urriaren 6ko 1/2011 Foru Dekretu-Legearen aurretik zegoen bateragarritasunari euts diezaion mendetasunerako laguntzetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Gizarte Politikako Batzordean eztabaidatu eta bozkatu dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urriaren 6ko 1/2011 Foru Dekretu-Legearen aurretik zegoen bateragarritasunari euts diezaion mendekotasunerako laguntzen arloan.

Urriaren 6ko 1/2011 Foru Dekretu-Legeak batezintasuna ezartzen du mendekotasuna dutenentzako laguntzari dagokionez gizarte zerbitzu orokorren zorroan ezarritako prestazio guztien kasuan, baina esku ematen dio Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariari, foru arau baten bidez prestazio horietako batzuen arteko bateragarritasuna ezartzeko.

Aukera hori baliatuta onetsi da, hain zuzen ere, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren urriaren 21eko 103/2011 Foru Agindua, zeinean bateraezintzat jotzen baitira ondokoak:

- Mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditzeko eta haien zaintzaileei laguntzeko laguntza ekonomikoak eta Eguneko zentroa zerbitzua.

- Eguneko zentroaren zerbitzua eta udalek ematen duten etxeko laguntza zerbitzua.

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen informazio-eskari bati Gizarte Politikako kontseilariak emandako erantzunaren arabera, gaur egun 160 pertsona nagusik eta mendekotasuna duten 164 pertsonak jasotzen dituzte batera mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditzeko eta haien zaintzaileen aldeko laguntza ekonomikoak eta eguneko zentroaren zerbitzua.

Talde horien barruan badira 54 erabiltzaile, prestazio horiez gain udalek ematen duten etxeko laguntza zerbitzua ere jasotzen dutenak.

Neurriak ekarriko duen aurrezpen ekonomikoa zein izanen den jakiteko ikusi egin beharko da ea erabiltzaileek zer hautatzen duten: laguntza ekonomikoa eta eguneko zentroaren laguntza ala laguntza hori eta udalek ematen duten etxeko laguntza zerbitzua, ondoko datuekin bat:

a) Pertsona nagusiak (160)

- Laguntza ekonomikoa: 60.000 euro hilean.

b) Mendekotasuna duten pertsonak (164)

- Laguntza ekonomikoa: 56.000 euro hilean.

Etxeko laguntza zerbitzua eta eguneko zentroarena batera jasotzen duten erabiltzaile guztiek eguneko zentroaren aldeko hautua eginen balute, 17.611,58 euro inguru aurreztuko lirateke hilean.

Baldin eta, litekeena denez, erabiltzaileek laguntza ekonomikoa lehenetsi beharrean eguneko zentroa lehenesten badute, Nafarroako Gobernuak 1,6 milioi euro aurreztuko ditu.

Halere, Ezgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko elkarteetan eta entitateetan Nafarroako Federazioak dioten bezala, paradoxikoa bada ere, prestazio horien erabiltzaile guztiek egoitza zerbitzua bezalako prestazio bermatu baten aldeko hautua eginen balute, Nafarroako Gobernuak bere gain hartu beharreko kostua 6 aldiz handiagoa izanen litzateke.

Gure iritziz, pertsona horien gizarte eskubideen arloko murrizketak larriki kaltetzen du haien egoera soziala (gogorarazi beharra dago laguntzak soilik jasotzen dituztela baldin eta errentamuga bat gainditzen ez badute), eta Mendekota-

sunari buruzko Legearen printzipioaren aurkakoa da, hartan ezartzen baita mendekotasuna duten pertsonak bizitza egiten duten inguruan egonen direla, ahal den neurrian.

Pertsona talde bereziki zaugarri bati eragiten dion gizarte-eskubideen murrizketa bat delako; ustezko aurrezpena gainkostu bihur daitekeelako gero; eta Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonei laguntzeko Legea-

ren printzipioak urratzen direlako, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urriaren 6ko 1/2011 Foru Dekretu-Legearen aurretik zegoen bateragarritasunari euts diezaion mendekotasunerako laguntzetan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du babesa ematen diela Aezkoan eta Erronkarin oihan-biomasako plantak ezartzeko ekimenei.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu babesa ematen diela Aezkoan eta Erronkarin oihan-biomasako plantak ezartzeko ekimenei.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Parlamentu honetan zenbait proiektu sustatu dira azken urteotan, Pirinioetan, Erronkariko eta Aezkoako ibarretan, oihan-biomasako planta bana paratzeko. Ekimen horien jatorrian toki-erakunde

publikoak egon dira, ibarretako batzarreak eta udalak, hain zuzen ere.

Denbora honetan zehar, Nafarroako Gobernuak nahiz haren menpeko estamentuek ere proiektu horiekiko konpromisoa erakutsi dute. Halarik ere, proiektu horiek ageriko arrazoirik gabe geldiarazi dira, halako moldez non bertan behera gelditzeko arriskua duten.

Ekimen horiek aukera bat ziren, eta dira, jardura ekonomikoa ezartzeko eta enplegua sortzeko, non eta enpresak erakartzea oso zaila den eskualde batzuetan. Eskualde horietan, halaber, badute lehengaia –zura–, eta horrek proiektuen bideragarritasuna ziurtatzen du.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

**1.** Nafarroako Parlamentuak bere babesa berresten die Aezkoako eta Erronkariko toki entitateek beren ibarretan oihan-biomasako planta bana ezartzeko sortu eta sustatutako ekimenei.

**2.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, egin beharreko jarduketara guztiak egin ditzan, 2012an oihan-biomasako proiektuak Erronkariko eta Aezkoako ibarretan gauzatzeko aldera.

Iruñean, 2011ko azaroaren 30ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioek ukitutako ondarearen inbentarioa egin dezan.**

### *BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioek ukitutako ondarearen inbentarioa egin dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikulua eta hurrengo babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken urteotan gatazka sortu da Nafarroan, jakin izan denean Eliza Katolikoak, bere elizbarrutiaren bitartez, ustez herriarenak diren 1087 ondasun immatrikulatu dituela Jabetzaren Erregistroan, horretarako Hipoteka Legeko 206. eta 207. artikulua baliatuta.

Jose María Aznarren gobernuaren lege dekretu baten bitartez –irailaren 4ko 1867/1998 Errege Dekretua, 1998ko irailaren 29ko Estatuko Aldizkari Ofiziala–, kendu egin zen, 1998an, Hipoteka Erregelamenduko 5. artikulua, zeinak salbuetsi egiten baitzuen gurtza katolikoko tenpluen inskripzioa. Horren ondorioz heldu zen gune horien immatrikulazio masiboa –katedralak, elizak, basilikak eta ermitak–, bai eta herriek ordura arte eraiki, erosi eta mantendutako beste toki asko eta askotakoren ere, inoren izenean inskribatu gabe zeudenak

ordura arte: parrokia-etxeak, atariak, hilerriak eta bestelako ondasunak, hala nola etxeak, finkak, mendiak, bazkalekuak, baratzeak, frontoi bat, eta abar.

Hipoteka Legeko 206. artikulua, zeinak Elizbarrutiaren ziurtagiri bidez immatrikulatzeko pribilegioa ematen baitio Elizari, konstituziokontakotasun-susmopean dago, Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren zenbait epai erabat logikoren ondotik; izan ere, Hipoteka Legea 1946an onetsi zen, Estatu bete-betean konfesionala eta frankista zenean. Horregatik eman zitzaizkion Elizari immatrikulazioak egiteko eman zitzaizkion abantaila ederrak. 1978ko Konstituzioak Elizaren eta Estatuaren arteko banaketa ezarri zuenez gero –alegia, Estatu ez-konfesionala ezarri zuenez gero–, are eztabaidagarriagoa da Elizbarrutiari Estatuaren eginkizunak esleitzea eta fede-emaile publiko bihurtzea, haren izenean mota orotako ondasunak immatrikulatzeko.

Erabaki proposamena:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Eliza Katolikoak egindako immatrikulazioek ukitutako ondasun guztien inbentarioa egin dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du beharrezkoak diren tresnak taxutu ditzan, 1946ko otsailaren 8ko Hipoteka Legeko 206. artikulua indargabetzeko. Bai eta Hipoteka Erregelamenduko 304. artikulua ere.

**3.** Nafarroako Gobernuak toki entitateen jabetzako ondarearen defentsa juridikoa egin dezan, agerikoa baita haien titulartasun publikoa. Baldin eta toki entitateek horretarako eskaera egiten badute.

**4.** Nafarroako Parlamentuak Eliza Katolikoa premiatzen du, justiziari zor zaionez eta haren borondate onaren erakusgarri, immatrikulazioa egin aurreko egoeran utz ditzan immatrikulatutako ondasunak.

Iruñean, 2011ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Victor Rubio Martínez

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Zeure burua begietsi” proiektua garatzeko protokolo bat ezar dezan.**

### *MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “Zeure burua begietsi” proiektua garatzeko protokolo bat ezar dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

“Ana Montoro” fundazioaren honako proiektuen berri izan dugu Osasun Batzorde honek azaroaren 30ean egindako lan bilera batean: “Zeure burua begietsi” eta “Zure ilea irribarre baten truke”.

“Zeure burua begietsi” proiektuaren helburua da minbiziaren edo beste gaixotasun larri baten

ondorioz ilea galdu duten pertsoneri –mutikoak, neskatilak, nerabeak, emakumeak eta gizonezkoak– lagun egitea, babeseta eta aholku ematea. Proiektu hau ezin interesgarriagoa da; izan ere, babes emozionala ematen die gaixoei, hobetu egiten du haien autoestimua eta tratamendu klinikoari aurre egiteko ahalmena indartzen du. Hartara, gaixo horien laguntza klinikoa osatzen eta sendotzen du, eta mesede egiten dio tratamendu edo/eta sendatze prozesuari.

Ematen du frogatuta dagoela gaixotasun horiek dituzten pertsonen indar handiagoarekin eta jarrera hoberekin egiten diotela aurre gaixotasunari haien autoestimua hobetzen denean, eta ilea erori izana gainditzen dutela, ileordea jarri nahiz jarri ez.

Proiektu horretan azpimarra jartzen da lan hori eta osasun arloko profesionalen egitekoak koordinatzeko premian, gaixotasun horien tratamenduari dagokionez.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du “Ana Montoro” fundazioarekiko lan-kidetza protokolo bat ezar dezan, “Zeure burua begietsi” proiektua garatze aldera, zertarako eta minbiziaren edo beste gaixotasun larri baten ondorioz ilea galdu duten pertsoneri ematen zaien laguntza integrala hobetzeko.

Iruñean, 2011ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Ana Montoro” Fundazioarekiko lankidetzaproto­kolo bat ezar dezan “Zure ilea irribarre baten truke” proiektua garatzeko.**

*MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “Ana Montoro” Fundazioarekiko lankidetzaproto­kolo bat ezar dezan “Zure ilea irribarre baten truke” proiektua garatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

“Ana Montoro” fundazioaren honakoproiektuen berri izan dugu Osasun Batzorde honek azaroaren 30ean egindako lan bilera batean: “Zeure burua begietsi” eta “Zure ilea irribarre baten truke”.

“Zure ilea irribarre baten truke” proiektuaren helburua da besteen gaixotasunaren aurrean neska-mutikoak sentsibilizatzea. Orobat bilatzen du ikasleak heztea, norberaren nahiz besteen gaixotasunari aurre egiteko moduari buruz eta, are, heriotzari aurre egiteko moduari buruz.

Argi dago gure gizartea ez dagoela prestatuta ez gaixotasun larriari ez heriotzari aurre egiteko. Izan ere, badago halako obskurantismo moduko bat, zeinak pertsona gaixoe­kiko beldur edo errefusa eragiten baitu batzuetan. Pertsona gaixoko beste pertsona batzuen errefusa pairatzen dute,

ezezagun denari dioten beldurreratik oro har, emozionalki prestatuta ez egoteagatik norberaren nahiz besteen gaixotasun larriaren gisako egoera latzei aurre egiteko.

Proiektuak azpimarra jarri nahi du balioen ikasketaren tratamenduan: nor bere burua onartzea, besteak onartzea, elkartasuna, lankidetzaren, besteen sufrimendua onartzea, pertsona osasuntsuen eta gaixoen arteko harremanak normalizatzea eta sustatzea, eta abar.

Xedea da ikastea, txiki-txikitandik, gaixotasun-egoerak ezagutzen, gaixotasuna izan badela onartzen, norberaren nahiz besteren gaixotasunarekin elkarbizitzen, sufrimendua arintzen laguntzea, horretarako lagun egiten jakinez, elkartasuna adierazten jakinez, ulertzen, toleratzen eta laguntzen jakinez.

Txiki-txikitandik jardun beharra dago. Ohikoak izan arren desio ez diren egoerak normalizatzeko, norberaren edo/eta besteen mina dakarten egoerak normalizatzeko.

Proiektua Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloko ikasleei zuzendua dago, eta hainbat fase ditu. Gure Erkidegoko Lehen Hezkuntzako curriculumeko oinarritzako konpetentziak eta helburuak garatzea jasotzen du, bai eta kontzeptu- eta prozedura-erakundearen tratamendua ere, lehentasuna emanez balioen eta jarreraren edukiei. Eta orobat jasotzen ditu ikasleentzako eta oro har hezkuntza-erkidegoarentzako jarduera berariazkoak, irekiak eta progresiboak.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak Nafarroako Gobernu­ko Hezkuntza Departamentua premiatzen du azter dezan ea zer aukera dagoen “Ana Montoro” fundazioarekiko lankidetzaproto­kolo bat ezartzeko, hala nahi duten ikastetxeek “Zure ilea irribarre baten truke” proiektua garatze aldera.

Iruñean, 2011ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoaren bigarren multzoaren legezkontrakotasuna berresten duen epaia aplikatzeko aurreikusi diren ekintzei buruzkoa.**

*MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoaren bigarren multzoaren legezkontrakotasuna berresten duen epaia aplikatzeko aurreikusi diren ekintzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Landa Garapen,

Enplegu eta Ingurumeneko kontseilari Lourdes Goicoechea Zubelzu andreak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran.

Auzitegi Gorenak berretsi egin du Castejongo "Elerebro" ziklo konbinatuko zentral termikoaren bigarren multzoaren legezkontrakotasuna; halatan, Nafarroako Gobernuak 2005ean emandako udalez gairik proiektu sektoriala baliogabetu du eta Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 2008ko ekaineko epaia berretsi du.

Auzitegi Gorenak "Elerebro" ziklo konbinatuko zentral termikoaren bigarren multzoaren legezkontrakotasuna berretsi du, ez duelako gordetzen Castejongo erdigunearekiko gutxieneko distantzia. Nafarroako Gobernuak zer aurreikusi du epai hori betearazteko?

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu instalazio horri legez kanpo jarduten uztetik eta sustatzetik heldu diren erantzukizun politiko eta ekonomikoak argitzeko?

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

## **Galdera, San Juan de Dios Ospitalearekiko ituna dela-eta gardentasuna sustatzeko hartu beharreko neurriei buruzkoa.**

### *BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, San Juan de Dios Ospitalearekiko ituna dela-eta gardentasuna sustatzeko hartu beharreko neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Ganberako Araudiak dioenari jarraiki, Nafarroako Gobernuari honako galdera helarazten dio, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan azaroaren 22an Comptos Ganberako Lehendakariak agerraldia egin zuen Osasun Batzordean. Bertan, San Juan de Dios Ospitalearekiko hitzarmenari buruz Osasun Sailak 2010ean egindako ikerketa aztergai duen txostena azaldu zuen.

Comptos Ganberak dioenez, Osasun Sailak egindako azterketak 2008 eta 2009an justifikatzen zuen aurrezpena, 7 eta 8 milioi eurokoa, hurrenez hurren, ez da zuzena, ematen diren diru-kopuruak ez direlako zuzenak. Alde batetik, ospitale horretako jarduera anbulatorioa, jardueraren % 42a, hain zuzen, ez delako aintzat hartu, eta, bestetik, kostuak kalkulatzeko erabilitako metodologia ez dela baliagarria.

Hortaz, txostenak argitara ematen duen ondorio nagusietako bat da aurrezpen hori ez dela halakoa izan, eta agian diru galera suposatu ahal izan diola Osasunbideari.

Txosten honek azaleratzen duenaren garrantzia kontuan harturik, eta gardentasunaren mesedetan, aurkezten dugu honako galdera:

San Juan de Dios Ospitalearekiko hitzarmenari buruz Osasun Sailak 2010ean egindako ikerketari buruz Comptos Ganberak egindako txosten xehea ikusita, eta 2010ean lanean ari ziren hainbat kargu eta teknikarik oraindik ere bere horretan dirautela jakinik, zein neurri hartuko ditu Osasun Sailak gardentasuna sustatu eta erantzukizun politikoak eskatze aldera?

Iruñean, 2011ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoaren bigarren multzoa legez kontrakoa dela deklaratzeko duen epaiaren ondotik egindako diren ekintzei buruzkoa.**

*VICTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Victor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoaren bigarren multzoa legez kontrakoa dela deklaratzeko duen epaiaren ondotik egindako diren ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Auzitegi Gorenaren epai irmo batek Castejongo "Elerebro (Hidrocantábrico)" ziklo konbinatuko zentral termikoaren bigarren multzoaren legezkontrakotasuna deklaratu duenez eta Nafarroako Gobernuak 2005eko azaroan emandako udalez gaindiko proiektu sektoriala deuseztatu duenez, ondokoa jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak zer egiteko asmoa du Castejongo bizilagunen osasuna ziurtatze aldera? Zer ondorio izanen ditu Auzitegi Gorenaren epaiak? Insatalzioa ixten baldin bada, zer ondorio ekonomiko izanen ditu horrek Nafarroako gizarteari begira?

Iruñean, 2011ko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

## **Galdera, jakiteko nork hartuko dituen bere gain Zaragoza-Iruña abiadura handiko linea eraikitzearen ondorioz gerta daitezkeen kostu gehigarriak.**

*VICTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Victor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko nork hartuko dituen bere gain Zaragoza-Iruña abiadura handiko linea eraikitzearen ondorioz gerta daitezkeen kostu gehigarriak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Sustapen Ministerioaren 2010eko abenduaren 17ko FOM/3317/2010 Aginduak, aireportu, errepi-de eta trenbide-azpiegiturak egitean efizientzia hobeteari buruzkoak, ondokoa dio hitzez hitz 2. artikuluko 3. puntuan:

"Oro har, aldaketak onartu ahalko dira proiektuetan, informazio-azterlanei dagokienez, lurralde-administrazioek proposatuta, baldin eta ez badute iraunkortasunari, ekonomiari eta efizientziari buruz

agindu honetan ezarritako irizpide orokorren aurka egiten eta proposamena egin duen administrazioak bere proposamenetik heldu den gainkostua bere gain hartzen badu."

"Estatuko Administrazio Orokorraren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta ADIF-Trenbide-azpiegiturak Administrazteko Ente Publikoaren arteko Lankidetzaren hitzarmena, Zaragoza-Iruña abiadura handiko linea Nafarroan

eraikitzea" izenekoaren jarraipenerako eta koordinaziorako batzordean auzi hori zer neurritan joratu da?

Nafarroako administrazioak bere gain hartuko al du edozein gainkostu? Horrela ez bada, nork ordainduko ditu gainkostuak?

Iruñean, 2011ko abenduaren 7an

Foru parlamentaria: Victor Rubio Martínez

---

## **Galdera, Caritasi oinarrizko errentaren ordainketarako aurrerakinak itzultzeari buruzkoa.**

*ENRIQUE MARTÍN DE MARCOS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Enrique Martín de Marcos jaunak aurkeztutako galdera, Caritasi oinarrizko errentaren ordainketarako aurrerakinak itzultzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Enrique Martín de Marcos jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilari Elena Torres Miranda andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak zein egunetan eta zer kontusailen kargura itzuliko du oinarrizko errenta ordaintzeko aurrerakinak direla-eta Caritasi zor dion dirua?

Iruñean, 2011ko abenduaren 7an

Foru parlamentaria: Enrique Martín de Marcos

## **Galdera, jakiteko zer zuzemen egin dituen Nafarroako Gobernuak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Akitaniako Erkidegoak mugaz gaindiko eta estatuarteko europar entitate bat sortzeari dagokionez.**

### *PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer zuzemen egin dituen Nafarroako Gobernuak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Akitaniako Erkidegoak mugaz gaindiko eta estatuarteko europar entitate bat sortzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, abenduaren 22ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak ahoz erantzun dezan:

Euskal Autonomia Erkidegoak eta Akitaniako Erkidegoak –erkidego mugakideek, alegia– mugaz gaindiko eta estatuarteko europar entitate baten sorrera sinatu dute abenduaren 12an. Nafarroako Gobernuak zer informazio du horri buruz? Zer zuzemen egin ditu horri buruz? Zer komunikazio jaso ditu eta zer erantzun eman die horiei? Zehazki, Gobernuak hartu al du horri buruzko erabakirik?

Iruñean, 2011ko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, ETB ikusi ahal izateari buruzkoa.**

### *KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Gobernuak bidalitako idazkia, ETB ikusi ahal izateari buruz Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren gainekoa, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea ETB ikusi ahal izateari buruz Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galdera

(2011ko azaroaren 4ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua) Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetuko dela, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Kontseilariak erantzun dezan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, prestazio handiko trenbidearen zati desberdinak egiteko aurreikuspeni eta inbertsioari buruzkoa.**

### *SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Gobernuak bidalitako idazkia, prestazio handiko trenbidearen zati desberdinak egiteko aurreikuspeni eta inbertsioari buruz Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren gainekoa, hona ERABAKIA:

**1.** Xedatzea prestazio handiko trenbidearen zati desberdinak egiteko aurreikuspeni eta inbertsioari buruz Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren gainekoa, hona ERABAKIA:

tsioari buruz Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galdera (2011ko abenduaren 2ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua) Sustapen eta Etxebizitza Batzordean izapidetuko dela, Sustapen eta Etxebizitza Kontseilariak erantzun dezan.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Valtierrako San José Egoitzako postuei buruzkoa.**

### *JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, Valtierrako San José Egoitzako postuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Zenbat postu itundu ditu Nafarroako Gobernuak Valtierrako San José egoitzarekin? Zenbat postu itundu zituen 2007tik 2011ra bitarte, bi urte horiek barne?

Zergatik ez dira ituntzen dauden postu guztiak? Itundutako postuek zer ehuneko egiten dute dauden postu guztien artean?

Iruñean, 2011ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno



## **Galdera, “0-3 urteko haurrak eskolatzeko hitzarmenak udalekin (Ezkaroze, Lerin, San Adrián, Altsasu eta Arbizu)” kontusailaren betetzeari buruzkoa.**

### *AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, “0-3 urteko haurrak eskolatzeko hitzarmenak udalekin (Ezkaroze, Lerin, San Adrián, Altsasu eta Arbizu)” kontusailaren betetzeari.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Aitziber Sarasola Jaca, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Ganberako araudiak adierazten duen bezala, ondoko galdera egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun dezan.

2011ko aurekontuetan, honako partida ageri zen:

41810410001 7609325106, “0-3 urteko haurrak eskolatzeko hitzarmenak udalekin (Ezkaroze, Lerin, San Adrián, Altsasu eta Arbizu)”, 1.027.459

Partida horren nondik norakoak jakin nahiko genituzke. Zein da partida horren exekuzio egoera?

Zenbat diru falta da ordaintzeko eta zein eskolari? Ordaindu gabeko dirua noiz ordainduko zaie herriei? (Informazioa herrika nahi dugu).

Iruñean, 2011ko abenduaren 7an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, 2010eko otsailaren 8koa, izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzeari buruzkoa.**

### **“Giza Baliabideak” eta “Foru Parlamentariak” fitxategiak aldatzea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2010eko otsailaren 8an harturiko Erabakiaren bidez, erakunde honetan dauden datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautu ziren. Ebazpen hori 2010eko martxoaren 22ko 36. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Geroago detektatu da Nafarroako Parlamentuko datu pertsonalen fitxategietako bi aldatu beharra dagoela. Lehendabizi, “Giza Baliabideak” izeneko fitxategiko e) letra, jasotze aldera datuak lagatzea Nafarroako Parlamentuak Parlamentuko langileen eta foru parlamentarien bizitza eta istripu aseguruak kontrataturik dion aseguru-enpresari; izan ere, enpresa horri ondoko datu pertsonalak laga behar zaizkio: izen-abizenak, NANA eta jaioteguna. Orobat jasoko da datuak Nafarroako Gobernuari lagatzea, zehazki Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Atalari edo, kasua bada, langileen urteko azterketa medikoa hala eskatzen duten langileentzat esleitzen zaion enpresari, horretarako ere datu pertsonal horiek berberak laga behar baitira.

Bigarrenik, “Foru Parlamentariak” izeneko fitxategia ere aldatu beharra dago, Nafarroako Gobernuak eskatu baitu foru parlamentarien zerrenda osoa, non jasota ageri behar diren haien izen-abizenak eta NANA, haiei guztiei sarbide elektronikoa emate aldera Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Hitzarmenen eta Itunen Erregistrora, abuztuaren 9ko 43/2010 Foru Dekretua-

ren bidez araututakora (2010eko abuztuaren 30eko 105. NAO).

Horren ondorioz, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikulua betetze aldera, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.1 artikulua ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. “Giza Baliabideak” izeneko fitxategiko e) letra aldatzea. Honela geldituko da: Datu pertsonalen lagapena: Gizarte Segurantza eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra, funtzionarioen mutualitatea, langileak heldu diren administrazio publikoetako langileen erregistroak, Nafarroako Parlamentuko bizitza nahiz istripu aseguruaren kontratua egiten duen aseguru-enpresa, Nafarroako Gobernu eta azterketa medikoa egiten duen enpresa.

2. “Foru Parlamentariak” izeneko fitxategiko e) letra aldatzea. Honela geldituko da: Datu pertsonalen lagapena: Nafarroako Gobernu.

3. Datuak Babesteko Espainiako Agentziari jakinaraztea, aipatu fitxategien inskripzioa aldatze aldera, Datu pertsonalak babesteko Lege Organikoa garatzen duen Erregelamenduan ezarritako moduari eta prozedurari jarraikiz.

4. Erabaki hau igortzea Nafarroako Aldizkari Ofizialera eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialera, argitara dadin.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**María Chivite Navascués andreak foru parlamentari izaerari uko egitea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

María Chivite Navascués andreak foru parlamentari karguari uko egiteko aurkeztutako idazkiari buruz, honakoa ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako idazkia, non foru parlamentari izaerari uko egiten baitio. Foru parlamentari

izaera lortu zuen martxoaren 28ko 1/2011 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (2011ko martxoaren 29ko 61. zenbakiko NAO), Partido Socialista de Navarra-PSOE alderdiaren hautagaitzaren barruan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Raquel Garbayo Berdonces andrea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Raquel Garbayo Berdonces foru parlamentariak aurtengo azaroaren 30ean aurkezturiko idazkia, non jakinarazten baitu Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartu dela, ERABAKI DA:

1. Idazki hori jasotzat ematea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**María Carmen Ochoa Canela andrea Socialistas de Navarra parlamentu-taldean sartzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik María Carmen Ochoa Canela foru parlamentariak aurtengo abenduaren 1ean aurkezturiko idazkia, non jakinarazten baitu Socialistas de Navarra parlamentu-taldean sartu dela, ERABAKI DA:

1. Idazki hori jasotzat ematea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Enrique Martín de Marcos jauna Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularrean sartzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Enrique Martín de Marcos foru parlamentariak aurtengo abenduaren 1ean aurkezturiko idazkia, non jakinarazten baitu Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularrean sartu dela, ERABAKI DA:

1. Idazki hori jasotzat ematea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularraren eleduna aldatzea.**

2011ko abenduaren 1ean aurkeztutako idazki baten bidez Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularrak jakinarazi zuen foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andrea izendatzen zuela parlamentu-taldearen eledun, Santiago Cervera Soto jaunaren ordez.

Iruñean, 2011ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera